



Azpeitiko Udala

LAGUN ONAK FUTBOL TALDEAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA FUTBOLA SUSTATZEKO ETA GARATZEKO

Azpeitian, 2022ko irailaren 1ean

BILDUTA

Batetik, NAGORE ALKORTA ELORZA, adin nagusikoa, 72.471.832-M zenbakiko IFZ duena eta egoitza soziala Azpeitiko (Gipuzkoa) Plaza Nagusia, 5ean P-2001900-F zenbakiarekin. AZPEITIKO UDALAREN izenean eta haren ordezkari gisa ari da ALKATE-UDALBURU gisa Udalbatzak 2019ko ekainaren 13an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendua.

Eta bestetik, Iñigo Arregi Azkue, adin nagusikoa, 72.439.630-A zenbakiko IFZ duena, LAGUN ONAK FUTBOL TALDEA izeneko kirol-entitatearen izenean eta ordezkari gisa, LEHENDAKARI gisa. Entitatearen egoitza soziala Azpeitian (Gipuzkoa) dago, Artubia etorbidean, 30 zenbakiko IFZ du, eta Euskal Herriko Kirol Entitateen Erregistroan erregistratuta dago CD-0001437 zenbakiarekin.

Bi alderdiek lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri duten ordezkaritzan hitzemateko eta

AURREKARIAK

1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, kirola herri onurako gizarte jarduera dela xedatzen du 2. artikuluan, pertsonaren heziketa eta garapenaosatzen, bizi kalitatea hobetzen eta norbanakoaren nahiz gizataldearen ongizatea lortzen laguntzen duelako.

Legearen aginte publikoek, bakoitzak dituen eskumenen esparruan, kirol politika garatzerakoan jarraitu behar dituzten printzipioak zehazten ditu. Printzipio horiek pertsona guztiek kirola askatasunez eta norbere borondatez egiteko duten funtsezko eskubidea bermatzea dute helburu.

Lege honek, eta modu berean Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (7.1.19 artikulua) Udalek beren kirol-ekipamenduak kudeatzeko eta mantentzeko duten eskumena aitortzen dute.

Gaur egun LAGUN ONAK FUTBOL TALDEA, IKASBERRI KIROEL ELKARTEA eta IRG CUP KIROEL KLUBA Azpeitian futbolaren kirol-jarduera hedatzeko



Azpeitiko Udala

lana egiten dute, udalerrirako interesekotzat jotzen dena, kirol honek berekin dituen balio positiboak hedatzen dituelako, batez ere gazteengan, euren prestakuntzarako elementu garrantzitsua delako.

Lagun Onak Futbol Elkartea izan da, hala ere, Azpeitiko herrian urte gehien futbolaren kirol-jarduera sustatu duen irabazi asmorik gabeko kirol-kluba, Udalarekin eta alorreko gainontzeko instituzioekin -publikoak eta pribatuak- elkarlanean. Urte luzeetan kirolaren inguruan egindako lanak eskarmentu handia eman dio Elkarteari barne egitura bat osatzeko, eta kirol honen inguruan hainbat programa bideratzeko.

Kirol elkartearen antolakuntza hori kontutan izanik, Udalak Artzubia etorbidean kokatutako GARMENDIPE FUTBOL ZELAIA izeneko kirol-instalazioa utzi zion Futboleko Kirol Eskola programa garatzeko bertan, adin eta sexu guztiei zuzenduta. Garmendipeko futbol-zelaiak erabilera egokia izan zezan, udalerrian futbolaren inguruan aritzen diren gainerako klub eta eragileekin koordinatzeko ardura ere emango zitzaion Elkarteari (hitzarmena 2018ko uztailaren 16an sinatu zen).

Aurretik sinatu zen hitzarmenak Udalaren urteko diru-laguntza ere jaso zuen LAGUN ONAK FUTBOL TALDEARI Garmendipeko futbol-zelaia behar bezala erabiltzeko, eta udalerrian futbolaren inguruan aritzen diren elkarte guztien artean egon behar duen koordinazioa lortzeko. Diru-laguntza hori bi zatitan banatu zen. Eskudirutan 30.000 €-ko laguntza jasoko zuen klubak, eta horrez gain, klubaren eskura jarriko zituen helburu horietarako behar dituen instalazioak*, eta Udalak bere gain hartuko zituen ohiko erabilerak sortutako ur eta elektrizitate-gastuak.

*Hori guztia, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93 eta 137.4.c) eta Toki Erakundearen Ondasunen Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraiki.

Hitzarmenaren epealdia amaitu ondoren Udalak eta futbol Elkartek hitzarmen berri bat egiteko borondatea azaldu dute helburu berarekin.

Ekimen horiek udalerrirako interesekotzat jotzen dira, eta Udalaren eta herriko Futbol erakundearen arteko lankidetzaren arduratsu baten emaitza dira. Udalak berea duen kirol instalazioaren kudeaketa herriko futbol elkarteek dituzten beharretara bideratuko du, eta bere kudeaketa LAGUN ONAK FUTBOL TALDEAREN gain izango da (2018. urtean herriko gainontzeko futbol kirol elkarteak beren adostasuna azaldu zuten, eta gaur egun egoera hori ez da aldatu)

Entitate onuradunak esleitutako zenbatekoa bere jardueraren eremuarekin eta funtzionamenduari zerikusia duten xedeetarako erabiliko du; eta ekarpena egindako hurrengo urteko denboraldia amaitu ondorengo hilean (uztailean) dagokion dokumentazio justifikatzailea aurkezteko betebeharra izango du Udal honetan.



Azpeitiko Udala

Azpeitiko ehunka haur eta gazte mugiarazten dituen egitura izatea oso positiboa da udal kirol politikaren helburuak lortzeko. Halaber, Nazio mailan lehiatzen den taldea izateak, erreferentzia eta motibazio gisa balio du udalerriko haur eta gazteentzat udalerriko dinamikotasun-ekonomiko eta turistikoaz gain.

Horregatik, kirol-modalitate hori toki eremuan praktikatu eta garatu ahal izateko, Lagun-Onak kirol-klubak egiten duen lana udalerrirako intereskotzat jotzen da eta Udalaren eta herriko Futbol erakundeen/eragileen arteko lankidetzaren arduratsu baten emaitza dira. Udalak berea duen kirol instalazioaren kudeaketa herriko futbol elkarteek dituzten beharretara bideratuko du, eta bere kudeaketa LAGUN ONAK FUTBOL TALDEAREN gain izango da (2018. urtean herriko gainontzeko futbol kirol elkarteak beren adostasuna azaldu zuten, eta gaur egun egoera hori ez da aldatu)

Udalaren laguntza urte-anitzekoa izango da, eta hitzarmen baten bidez arautuko da. Lau urteko indarraldia izango du formalizatzen denetik, eta ez-betetzeagatik deuseztatze-kasuen kalterik gabe.

Laguntzaren erregimen juridikoa dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta udalbatzak 2021ko azaroaren 2an onartu zuen dirulaguntzak emateko ordenantzan jasotakoa izango da.

Onuradunak beharrezkoa izango du hitzarmen hau formalizatu baino lehen, bere zerga-betebehar orokorrak, udal honekiko eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuta dituela egiaztatzea, eta itzultzeko edozein prozeduratan ez dagoela eta Legearen arabera onuradun izaera baduela egiaztatzen duen aitoren arduratsua aurkeztea. Laguntzaren ekimenak bideratzeko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da -koordinazio plana- edota erantzukizun zibileko aseguruia.

Udalaren 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak Jarduera Fisikoa eta Kirolaren sustapena bultzatuko dituzten ekimenak laguntzeko lerroa jaso du (Plan Estrategikoaren 8. eranskina), eta datozen urteetarako aurreikuspen bera egingo da. Lerro honen bidez dirulaguntza zuzena jasotzen da LAGUN ONAK FUTBOL TALDEAREN bestek beste, kirolari gazteek futbolaren kirol-modalitatea garatu ahal izan dezaten eta kirol jardueretan eta lehiaketetan parte hartzeko behar den prestakuntza sustatzeko.

Beraz, dirulaguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo adierazpen eta klausulen arabera:

ADIERAZTEN DUTE



Azpeitiko Udala

LEHENA.- Azpeitiko udala dela Garmendipe udal futbol-zelaiaren, aldagela, kantina eta bulego gisa erabiltzen diren eraikin erantsien jabea.

Azpeitiko udalaren xedeak dira:

- a) Herritarron osasuna eta bizimodu aktiboa bultzatzea jarduera fisikoa eta kirolaren sustapena komunitate-estrategia gisa erabiliz. Horretarako kirol-zerbitzuak, programak eta jarduerak antolatzeke eta koordinatzeko ekimenak bultzatuko ditu.
- b) Udalaren kirol-baliabideak, instalazioak, programak eta zerbitzuak joera eta behar berrietara egokitzea, ahalik eta herritar gehienek horiek erabiltzeko aukera izan dezaten.
- c) Sustapen, lehiaketa eta ikuskizun arloko kirol jarduerak sustatzea eta babestea.
- d) Kirol-asoziazionismoa indartzeko eta herritarrek tokiko kirolean parte-hartze handiagoa izateko, erakunde eta eragile ezberdinekin lankidetzaz hitzarmenak egitea (federazioak, klubak, elkarteak).
- e) Kirol-politika hezgarriak eta egituratuak bultzatzea, herrian eta herritarron balio egokiak garatzeko

BIGARRENA.- LAGUN ONAK FUTBOL TALDEAK eta Azpeitian futbolaren inguruan aritzen diren beste bi kirol-elkarteek (IKASBERRI KIROL ELKARTEA ETA IRG CUP KIROL KLUBA) kirol-jarduera hedatzeko lana egiten dutela, udalerrirako intereskotzat jotzen dena, kirolak berekin dituen balio positiboak hedatzen dituelako, batez ere gazteengan, beren garapen integralerako elementu garrantzitsua delako.

Zentzu horretan, Lagun Onak Futbol Elkartearen xedea da, futbolaren kirol-modalitatea sustatzea eta garatzea baita futbolaren inguruan aritzen diren kirol-elkarteen eta udalaren arteko ezinbesteko koordinazioa sustatzea ere. Dagokion Euskal Kirol Federazioan afiliatuta dago eta horretarako behar diren antolakuntza eta egitura ditu. Futbola sustatzeko hastapeneko futbol eskola ere badu.

HIRUGARRENA.- Bi erakundeen helburu erkidea kontuan hartuta eta euren esparruko kirol-eskaintzak koordinatzeko xedez, Hitzarmen hau sinatu da honako klausula hauei lotuta



Azpeitiko Udala

KLAUSULAK

LEHENA.- AZPEITIKO UDALAREN BETEBEHARRAK.

1.- Kirol-erabilerarako eskura jartzea

Azpeitiko udalak LAGUN ONAK FUTBOL ELKARTEAREN eskura jarriko du Artzubia Etorbidean kokatutako GARMENDIPE FUTBOL ZELAIA izeneko kirol-instalazioa, erabilera honetarako: futboleko kirol-modalitatea sustatzeko eta garatzeko, adin eta sexu guztiei zuzenduta eta futbolaren inguruan aritzen diren udal-esparruko zein gainerako elkarte/eragileekin koordinatuta.

Garmendipeko futbol-zelaia jabari publikoko ondasuna da –zerbitzu publikoa-. Azpeitiko udalaren jabetzakoa da eta 1.1.00017 zenbakiarekin dago jasota udal-inbentarioan. Artzubia Etorbideko 30ean dago eta 9.700 m²-ko azalera du. Iparraldetik Artzubia etorbidearekin eta 2532002 hiri-finkarekin egiten du muga, hegoaldetik udal-jabetzarekin, ekialdetik polikiroldegiko lurrekin eta mendebaldetik udal-jabetzarekin.

Honako hauek dira erabilera-lagapenaren xede diren instalazioak: 100 x 60 m-ko belarrezko zelaia, metalezko perimetro-baranda, 2 futbol-ate, ordezkoen aulkiak, 328 m² inguruko hegoaldeko hondoko harmailak, xafla tolestuko estaldura duten metalezko markesinak, ipar-ekialdeko ertzean kokatutako 23 m² inguruko taberna eta komun publikoak. Oinplano angeluzuzeneko, erdisotoko, solairu bakarreko, 95,85 m²-ko eta iparraldean kokatutako eraikin soziala, garaikur-areto gisa eta txoko gisa erabiltzen dena. Mendebaldeko tribuna-eraikina, 286,43 m²-ko harmailen azpian aldagelak eta instalazioak dituen. Aipaturiko tribuna-eraikinari erantsita 57,69 m²-ko aldagelak.

Ondasunaren erabilera-balioa 376.522,06 eurokoa da.

2.- Dirulaguntza, aurrekontu-kreditua eta zenbatekoa

Azpeitiko udalak urteko dirulaguntza emango dio kirol elkarteari udalerrian futbola sustatzeko eta garatzeko, Garmendipeko futbol-zelaia behar bezala erabili ahal izateko, eta udalerrian futbolaren inguruan aritzen diren elkarten artean egon behar duen koordinazioa lortzeko. Dirulaguntza hori bi zatitan banatuko da. Eskudirutan 2021-2022 denboraldiari lotuta 30.000 €ko laguntza jasoko du klubak eta datozen hiru ekitaldiei aurre egiteko 45.000€-ko laguntza; horrez gain, klubaren eskura jarriko



Azpeitiko Udala

ditu helburu horietarako behar dituen instalazioak, eta Udalak bere gain hartuko ditu ohiko erabilerak sortutako ur- eta elektrizitate-gastuak.

Hitzarmen hau formalizatu baino lehen, entitate onuradunak egiaztatu du bere zerga-betebehar orokorrak, udal honekikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuta dituela, eta itzultzeko edozein prozeduratan ez dagoela eta Legearen arabera onuradun izaera baduela egiaztatzen duen aitortpen arduratsua aurkeztu du.

3.- Ordaintzeko epeak eta moduak

Ekarpena hitzarmena indarrean dagoen urte bakoitzean modu aurreratuan egingo da, Udal Altxortegiaren erabilgarritasunak aukera ematen duenean, Laboral Kutxa 3035 0020 5302 0000 9788 zenbakiko kontuan eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontuko 1 0500.481.341.00.02 2022 transferentzia arruntak kirol batzordea aurrekontu-partidaren kontura joango da.

Udalak datozen 3 ekitaldietako zenbatekoa aurrekontuetan jasoko duela hitzematzen du, urtez urte hitzarmenak indarrean jarraitzen duen bitartean.

4.- Epea eta justifikatzeko modua

Aipaturiko entitate onuradunak hitzematzen du esleitutako zenbatekoa bere jardueraremuarekin eta funtzionamenduarekin zerikusia duten xedeetarako erabiliko duela, eta ekarpena egindako hurrengo urteko denboraldia amaitu ondorengo hilean (uztailean) dagokion dokumentazio justifikatzailea aurkeztuko duela Udal honetan, Udaleko Erregistro Orokorrean honako dokumentazio hau barne hartuko duen kontu justifikatzaile sinplifikatua aurkeztuz:

Dirulaguntzaren gastua justifikatzeko, erakunde onuradunak gastu-egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu justifikazio-kontuaren modalitatean, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 72. artikuluen arabera.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, denboraldi bakoitzari lotutako gastuak egiaztatu ahal izango dira.

Justifikazio-kontuak honako informazioa eman beharko du:

1.- Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketamemoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.



Azpeitiko Udala

2.- Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

A) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, (ohiko-gastuak kenduta) honako hauek adierazita: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, izandako desbideratzeak adieraziko dira.

B) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

C) Dirulaguntzen Lege Orokorren 31.3 artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

D) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki iritzitako egiaztagiria eskatuko dizkio onuradunari, dirulaguntza behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko.

Erakunde onuradunak bere gain hartzen du Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 30. artikulua dirulaguntza publikoak justifikatzeari buruz ezartzen dituen betebeharrak.

Justifikazioan, hala badagokio, aplikatu gabeko gerakinen kasuan itzulketaren ordainketa-gutuna jaso beharko da, bai eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 72.2.g) eta 90. artikuluetatik eratorritako interesak ere.

Dirulaguntza justifikatzeko azken eguna urte bakoitzeko **uztailaren 28a** izango da. Behar bezala justifikatu gabe data hori gaindituz gero, emandako dirulaguntza baliogabetu egingo da eta jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

BIGARRENA.- LAGUN ONAK FUTBOL TALDEAREN BETEBEHARRAK

Klubak nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena ditu, irabazi asmorik gabekoa da eta bere xede bakarra futbol kirol modalitatea sustatzea da, Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak xedatzen duen bezala, eta honako hauek bere gain hartuko ditu:

Hitzarmen honetan xedatutakoa eta hitzarmenetik datozen gainerako alderdiak betetzea, dagokion indarreko legeria aplikatuz.



Azpeitiko Udala

Eragiten dien indarreko legeria guztia betetzen dela zainduko du, antolatzen dituzten jardueretara eta eskura jartzen zaizkien instalazioetara joaten diren ikusle eta praktikatzailen kontrolaren eta portaeraren aipamen bereziarekin.

Azpeitiko udala bere logotipoarekin azalduko da euskarri grafiko guztietan, bere hedapenerako eta sustapenerako.

Futboleko Kirol Eskola

- Lagun Onak Futbol Taldeak Futboleko Kirol Eskola zuzendu, kudeatu eta egikaritu beharko du 40-133/2021 Foru Agindu, ekainaren 29koa, Kirol hastapeneko unitateen araubidearen baitan.

Kirol Eskola horrek 18 urte bete ez dituzten benjamin eta alebin-kategoriako ikasle guztiei irekita daude, kirola egiteko gaitasunek eragindako inolako murrizketarik gabe. Era berean, neska-mutilen berdintasunezko parte hartzea sustatuko da, batzuk eta besteak kirol praktika desberdinetan sailkatzen dituzten estereotipoak hautsiz. eta bertan izena emateko jarritako eskakizunak betetzen dituzten gazteak hartuko ditu, adinagatiko, egoera fisikoagatiko, sexuagatiko edo bestelako gorabehera sozialengatiko diskriminaziorik gabe.

- Futboleko Kirol Eskolaren helburu nagusia kirol hori sustatzea da bere kategoria guztietan, hezkuntza-, jolas- eta gizarte-xedeekin, oinarrizko jarduera urte edo denboraldi osoan zehar xede horiek lortzera bideratutako aisia- eta kultura-izaerako beste kirol-elkarte edo -klub batzuekin jarduerak edota lehiaketak antolatuz.

- LAGUN ONAK FUTBOL TALDEAK une oro elkarlanean jardun beharko du eta sarbidea koordinatu beharko du udalerrian futbola sustatzeko lanean diharduten bestelako kirol-klub, eragile zein ikastetxeekin. Koordinazio hori Udaleko Kirol Sailaren bitartez gauzatuko da. Kirol Sailak ezarriko ditu udalerrian futbolaren inguruan aritzen diren entitate guztien erabilerarako jarraibideak.

- Sarbidea bermatzeko eta Garmendipeko futbol-zelaiaren erabilera egokia koordinatzeko xedez, udalerrian futbolaren inguruan aritzen diren gainerako klub eta eragileekin koordinatzeko plan bat aurkeztu beharko du denboraldi bakoitzaren hasieran.

- Jarduera eta programa desberdinen garapen normalerako behar den



materiala jarri beharko du, instalazioetako oinarrizko ekipamendua izan ezik, hori jartzea Udalari baitagokio.

- Erabiltzen dituzten instalazioak baldintza onetan edukitzea eta horien erabilera optimizatzea, eta Udaleko Kirol Saila haietan izaten diren gorabehera guztiez informatzea. Lagun Onak Futbol Elkartea ez den beste eragileren batek erabiltzen dituen instalazioak erabilera horri dagozkion konponketa lanak hitzarmen honetako mantentze lanetatik kanpo geratuko dira. Udalari egoki iruditzen zaionean, instalazioen erabilera ikuskatuko du Udaleko Kirol Sailaren bitartez.
- Udaleko Kirol Sailarekin hitz egiteko arduradun bat izendatzea.
- Kirol Eskola eta Jarduera eta gainerako programek funtzionatzeko ezinbesteko kirol-teknikariak izendatzea. Teknikariek sektoreko legeria aplikagarriak zeregin horretarako eskatzen dituen baldintzak bete behar dituzte.
- Jarduera eta gainerako programen Kirol Eskolaren garapenean laguntzen duten teknikariak eta boluntarioak Klubak izendatuko ditu, Klubak ordainduko die, eta Klubaren mende egongo dira berak ezarritako barne-erregimeneko arauak betez.
- Klubaren bitartez eta Hitzarmen hau betetze aldera lanak egiten lagundu edo parte hartzen duten, lanak egikaritzen dituzten edo zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoekin sortzen den lan- edo merkataritza-harreman orotatik kanpo geratuko da udala.
- Idatziz eta aldez aurretik, Kirol Sailari galdetzea kirola eta jarduera fisikoa sustatzea xede duen edozein ekimeni buruz, bereziki Hitzarmen honetan eta urteko proiektuan ezarritako jarduerak edo programak aldatzea eragingo dutenei buruz.
- Udalak eta Udaleko Kirol Sailak deitzen dituen bilera guztietara joatea, eta haiek jarduerari buruz eskatutako informazio guztia ematea.
- Udalarekin eta Udaleko Kirol Sailarekin elkarlanean aritzea; Eskola Kirolaren esparrua arautzen duen GFaren araudia betetzen, eskola kirol kontseiluak antolatutako programa garatzen, kirol-ekitaldi herrikoiak, txapelketa eta, udalaren ekimenez, futbola sustatzen lagunduko duten beste edozein jarduera antolatzen eta gauzatzen. Elkarlan horrek ondorio hauek



Azpeitiko Udala

izango ditu: koordinazio teknikoa, Lagun Onak Futbol Taldeko pertsonen laguntza, jardueraren hedapena, jarduera muntatzeko eta desmuntatzeko laguntza eta ekitaldiak antolatzeko behar den guztia.

Azpeitiko udalerrian futbol-jardueraren Instalazioaren eta Koordinazioaren kudeaketa

Azpeitiko udalak Lagun Onak Futbol Taldearen eskura jarriko du Garmendipeko futbol-zelaia, erabilera-lagapen gisa eta behin-behineko izaerarekin, Klubak ezarritako urteko kirol-proiektuaren arabera programetarako, eta baita Garmendipeko futbol-zelaian futbolaren kirol-jarduera udalerriko gainerako klub, eragile eta ikastetxeekin eta Azpeitiko udalarekin koordinatzeko ere. Halaber, eskura izango dute Garmendipeko futbol-zelaiari atxikitako udalaren kirol-instalazioen erabilera ere.

Lagapenak, dena den, Lagun Onak Futbol Taldeak hitzarmen honen bitartez ezarritako kirol-xedeak betetzea eskatuko du. Halaber, Klubaren eginbeharra izango da Azpeitian futbolaren inguruan aritzen diren gainerako klubei (IKASBERRI KIROL ELKARTEA ETA IRG CUP KIROL KLUBA) futbol-zelaiko instalazioetarako sarbidea erraztea eta erabilera koordinatzea, futbola hezkuntza-xedeekin sustatzeko, Azpeitiko Udaleko Kirol Sailaren jarraibideen arabera.

Lagun Onak Futbol Taldeak koordinazio bermatzeko arduradun bat izendatu beharko du, futboleko kirol-klub guztiek Garmendipeko instalazioen erabilera egokia egin dezaten futbola sustatzeko eta jarduera-programak gauzatzeko orduan. Bera arduratuko da Udaleko Kirol Sailarekin hitz egiteaz ere.

Azpeitiko udalak eskubidea du aipaturiko instalazioa erabiltzeko, eta bereziki, antola ditzakeen jarduera edo ekitaldietarako. Gainera, lehentasuna izango du beste edozein entitate edo erakunderen aurrean, Lagun Onak Futbol Elkartearen programazioa errespetatuz.

Behartuta daude instalazioak eta altzariak arduraz kontserbatzeko, bai eta zelaiaren mantenuaz ardurtzeko eta elkarteko kideek nahiz erabiltzaileek, egiteagatik edo utzikeriagatik, sortzen dituzten kalteen erantzule izango dira eta berehala eta beraien kontura egin beharko dituzte egin beharreko konponketak, udalaren baimenarekin.

Lagun Onak Futbol Taldeari dagokio bere eskura jarritako instalazioen mantentze-, konponketa- (egiturazkoak ez direnak), segurtasun-, higiene-, zelaia ongarritzeko- eta garbiketa-lanak egitea.



Azpeitiko Udala

Oro har, elektrizitate- eta ur-horniduren kontratazioa eta ordainketa udalaren kontura izango dira.

Lagun Onak Futbol Taldeak ezingo du bere eskura jarritako eremuan obra edo jarduketarik egin udalaren idatzizko baimenik gabe.

Obra edo jarduketa horiek ondasun higiezinaren mesedetan geratuko dira eta Klubak ez du izango inolako kalte-ordain edo diru-konpentsaziorako eskubiderik haiek egiteagatik.

Klubak Azpeitiko udalaren alde aurretiko baimenik gabe egiten baditu obrak, udalak ondasuna jatorrizko egoeran uzteko agindua eman dezake, kalte-ordain edo diru-konpentsaziorako eskubiderik gabe. Klubak agindua beteko ez balu, jatorrizko egoeran uzteko obrak modu subsidiarioan egin ahal izango dira eta klubak obren kostua ordaindu beharko luke. Ondasuna jatorrizko egoeran uztea ezinezkoa izango balitz hari galerarik eragin gabe, kalte-eragilea kalte-ordaina ematera behartuta egongo litzateke.

Kluba izango da bere eskura jarritako ondasunetan hirugarrenei (pertsonei nahiz inguruko instalazioei) klubeko kideek edo erabiltzaileek egiteagatik edo ez-egiteagatik, doluagatik edo axolagabekeriagatik eragindako kalte eta galeren erantzule zuzena.

Debekatuta dago hirugarrenei edo kirola praktikatzean kalteak eragiteko arriskua sortzen duen publizitate-euskarri oro eta eduki sexista, arrazista edo xenofoboa duen publizitate oro.

Kirol-instalazioen erabileran eta Lagun Onak Futbol Taldeak sustatzen dituen jardueretan, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko indarreko legeriak aldeztu dituen balioak bete beharko dira. Halaber, bere jarduera-esparruan euskararen erabilera sustatu beharko da eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu beharko dira.

Hitzarmen hau iraungitzen denean, Klubak amaiera emango dio instalazioko lokal, espazio eta ekipamenduen erabilerari, eta Azpeitiko udalari jatorrizko egoeran itzuli beharko dizkio, erabileragatik jasandako higadura alde batera utzita.

Udalari une oro baimenduko zaio Hitzarmen hau betetzen dela zaintzeko jarraipen- eta ikuskapen-eskumena erabiltzea, instalaziorako sarbidea erraztuz eta eskatutako



Azpeitiko Udala

informazioa eta dokumentazioa emanaz.

HIRUGARRENA.- BATERAGARRITASUNA.

Dirulaguntza hau bateragarria da entitate onuradunak hitzarmen honen bitartez ezarritako xedeak betetzeko jaso ditzakeen beste diru-sarrera batzuekin, baldin eta guztira jasotako zenbatekoak ez baditu gainditzen sortutako gastuak.

LAUGARRENA.- INTERPRETAZIOA.

Azpeitiko udalarena da Hitzarmen hau interpretatzeko eskumena, eta baita Hitzarmen honi jarraikiz entitate onuradunak bere gain hartutako xedeak betetzen ez baditu Hitzarmena deuseztatzea erabakitzekoa ere.

BOSGARRENA.- INDARRALDIA.

Hitzarmen honek BI urteko indarraldia izango du, eta urtero luza daiteke beste bi urtetarako. Hitzarmenaren iraupen osoa 4 urtekoa izango da formalizatzen denetik, ez-betetzeagatiko deuseztatze-kasuen kalterik gabe.

Hitzarmen hau izenpetzen den momentuan jarriko da indarrean.

SEIGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEA-BALIOGABETZEA.

Lagapen-epea amaitzea Hitzarmena berehala iraungitzeko arrazoia izango da, eta instalazioak libre eta udalaren eskura utzi beharko dira jasotako egoera berean.

Lagapenaren iraungitze aurreratua Azpeitiko udalak hartutako erabakiaren ondorioz gertatuko da, Lagun Onak Futbol Taldeari espedientea entzunaldiarekin izapidetu ondoren.

Hitzarmena arrazoi hauengatik iraungi edo deuseztatu ahal izango da:

- Epea amaitzeagatik.
- Kirol-klubak—hitzarmen honen bidez bere gain hartutako eginbeharrak ez betetzeagatik eta, batez ere, udalerrian futbolaren inguruan aritzen diren gainerako kirol-klub eta eragileek- futbola sustatzeko jardueran laguntza eta koordinaziorik ez emateagatik. Arrazoi hori udalak balioetsiko du Lagun Onak Futbol Taldearekin entzunaldia egin ondoren.
- Hitzarmenaren xede-ondasunaren galera fisiko edo juridikoagatik.



Azpeitiko Udala

- Elkarren arteko adostasunez.
- Ebazpen judizialagatik.
- Klubak uko egiteagatik edo kluba desegiteagatik.

Udalak balioetsitako interes publikoagatik, ondasunak Azpeitiko herritarren interes orokorreko xedekotzat edo lehentasunezkotzat jotako beste erabilera batzuetara bideratzeko.

Hitzarmena aipaturiko edozein arrazoiren batengatik amaitzeak ez dio eskubiderik emango entitateari inolako kalte-ordain edo diru-konpentsaziorako eskubiderik.


Hitzarmen hau indargabetu edo amaitzen denean, Lagun Onak Futbol Taldeak udalaren eskura jarri beharko du aipaturiko instalazioa. Bestela, atzerapenak sor ditzakeen kalte eta galeren erantzule izango da.

ZAZPIGARRENA.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO LEGERIA.

Alderdiek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoari buruzko (3/2018) Lege Organikoari eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduari buruzko xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute lege horretan aurreikusitako betekizunak betetzeko, hitzarmen hau dela-eta dauzkaten erabiltzaileen datuei dagokienez.

Lagun Onak Elkartek beharrezkoa izango du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorrean eta datuen babesari buruzko gainerako arauetan ezarritakoari jarraitzea, eta beharrezko neurriak hartu beharko ditu.

Eta ados daudenaren seinale, bi aldeek sinatu dute agiri hau, ale bikoiztuan, goiburuan adierazitako leku eta datan.

AZPEITIKO UDALA   Azpeitiko Udala Nagore Alkorta Elorza KATETZA	LAGUN ONAK FUTBOL TALDEA Iñigo Arregi Azkue
---	---

